



Eguraldi txarrari, danborren hotsa

San Sebastian bezpera ospatu dute herriko ikastetxeek, pandemiagatik iragan urteetan hartu beharreko neurriak atzean utzita / 8-9

TXINTXARRI

Zaborraz eta pandemiaz

'Hondamendia' obra ekarriko dute herrira hilaren 28an; Harkaitz Canok idatzi du testua / 7

Atsotokarren eraikiko duten kirol eremuko lanak adjudikatzea adostu du udalbatzarrek / 2

Intzako Urdanpilleta eta Diaz de Gereñuk Gipuzkoako Trinketeko txapela jantzi dute / 10

ESKURA
TU
EUSKARA



DIRULAGUNTZAK
BADAUDE.
GALDETU BALDINTZAK

2022-2023 ikasturtea UDAL EUSKALTEGIAN

A1 eta A2 tituluak euskaltegian bertan lortzen dira.
B1 (1HE), B2 (2HE) eta C1 (3HE-EGA)eko azterketak egiteko prestatu.

IKASTURTEAREN IRAUPENA: EKAINAREN 22RA ARTE

- Astelehenetik ostegunera. Astean hamar ordu. Txandaka ibiltzeko aukera maila guztietan
- Hiru ordutegi aukeran: 09:00-11:30 | 15:00-17:30 | 18:30-21:00.
- 16 urtetik gorakoentzat.

IKASTARO ERDIKO
MARIKULAZIOA

MARIKULA
ZABALIK
URTARRILAREN
31RA ARTE



Niretzat Hiretzat, Narentzat
Zuretzat
GUZTIONTZAT
EUSKARA
Guretzat
Zuentzat
Harentzat
2022-2023
MARIKULA
EPEA ZABALIK
Pena de Inhabilitación: 10 años



Atsobakarren eraikiko duten kirol eremuaren bozeto bat. LASARTE-ORIAKO UDALA

Atsobakarreko lanak adjudikatu dituzte

Construcciones Mariezkurrena SL eta Construcciones Zubieder SL enpresek osatutako ABEEak aurrera eramango ditu kirol gune horretako lanak. Aurrekontua 6.553.854,32 eurokoa izango da. Hamabi hilabete izango dituzte, kontratua sinatzen dutenetik

Txintxarri

Construcciones Mariezkurrena SL eta Construcciones Zubieder SL enpresek osatzen duten ABEEak (Aldi Baterako Enpresa Elkarte) aurrera eramango ditu Atsobakarreko kirol instalazioen lanak, udalbatzarrek hala erabakita. Udal gobernuaren proposamenak aurrera egin du, PSE-EE, EAJ-PNV eta EH Bilduren aldeko bozkekin, eta ELOP-en abstentzioarekin. ABEE horrek hamabi hilabete izango ditu lanak burutzeko, kontratua sinatzen duten egunetik kontatzen hasita. Aurrekontua 6.553.854,32 eurokoa izango da, BEZa barne.

"Pozik" dago alderdi jeltzalearen bozeramaile Jon Antxordoki, proiektu horri "hasteko itxura" ikusten diolako. "Udal gobernuaren zorientzen dugu gai izan delako 2023 hasieran horri ekiteko, nahiz eta gogoratu nahi dugun 2015eko gure programako puntu nagusietako bat zela". Bestalde, adierazi du EAJ-PNVri "pena" ematen diola udal gobernuak egitasmoa gauzatzeko dirulaguntza bat galdu izana 2020an.

EH Bilduren baiezkioa "kritikoa" dela zehaztu du Jon Martinek. "Gure herriaren beharrei erantzuneko dien azpiegitura bat izan arren, atzerapen nabarmena izan du, 2016an publikizatu zuelako orduko udal gobernuak. Iazko irailean aurreratatu genuen urtea bukatu aurretik nekez hasiko zirela lanak; tamalez, asmatu egin dugu". Martinek azpimarratu du aurrekontua garestitu egin dela: "4,7 milioi eurotan zegoen kalkulatu egitasmoa 2017an, eta 6,5 milioikoa izango da azkenean".

Udal gobernuaren izenean, Agustin Valdivia alkateak eskerrak eman dizkie alderdiei proiektua babesteagatik. Gehitu du nahiago izan duela proiektua adjudikaziora atera aurretik itzarotea eta prezioak berrikustea. "Lehenago atera genezakeen, baina inor ez aurkezteko arriskuarekin".

Basaundiko dirulaguntzak

Basaundi bailarako etxebizitzak moldatzeko egitasmo bat aurrera eramango du udalak: batetik, eraikinetako irisgarritasuna

hobetu ahalko dute bizilagunek, eta bestetik, energetikoki birgaitu. Lan horietara zuzendutako bi dirulaguntza lerrori buruz jardun dira udalbatzarrean. ELOPeko kide Miguel Angel Tolosak azaldu du abstentitu egin dela alderdia, gaiari buruzko informazioa garbi eta garaiz jaso ez izanagatik: "Badakigu udal gobernuak bilera batzuk egin zituela bizilagunekin dirulaguntzen kopurua negoziatzeko, eta oposizioari informaziorik ez zioten eman".

Nahasmendua sortu du ekarpen ekonomiko horien gaiak, EH Bilduk adierazi duenez, ez dagoelako garbi zehaztuta lerro bakoitzarekin zein lan egin daitezkeen. "Dirulaguntzak onartzera goaz baina ez dakigu bizilagunek zein lan egin ditzaketen zehazki horietako bakoitzarekin, irisgarritasuna edo efizientzia energetikoa hobetzearen artean aukera dezaketen, ala bietan egin behar dituzten moldaketak". Alkateak erantzun du harremanetan jarriko dela Eusko Jaurlaritzarekin, afera hori zehazteko.



Irudi honetan lehen hitzaldian izan ziren hainbat erakundeetako ordezkariak. GFA

Tokiko Energia Komunitateaz informatzeko hitzaldiak

Lau hitzaldi iragarri ditu Lasarte-Oriako Udalak eta lehen biak jada egin dituzte, kultur etxeko auditorioan

Txintxarri

Lasarte-Oriako Energia Komunitatearen parte izan nahi duten herritarrek dagoeneko egin dezakete inskripzioa. Otsail amaierara arte izango dute horretarako aukera; hala jakinarazi zuten, Agustin Valdivia alkateak eta Zerbitzu Publikoetako zinegotzi David Mateosek, prentsaurrean. Bertan iragarri zituzten baita ere egitasmoaren berri emateko antolatutako hitzaldiak, eta horietan lehen biak astearte arratsaldean (hilak 17) eta asteazken goizean (hilak 18) egin

zitezten, kultur etxean. Bertan izan ziren Valdivia eta Gipuzkoako Ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensio, baita Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzako sailburuorde, Miguel de los Toyos eta Edinor-eko kontseilari ordezkaria, Juan Diego.

Lau hitzaldi iragarri zituztenez, datorren astean egingo dituzte falta diren biak. Hilaren 24an, 10:00etan eta 25ean, 18:00etan, horiek ere, orain artekoak egin dituzten leku berean. Auzoz auzoko bilera informatiboak ere deituko dituzte, otsailean.



TXINTXARRI

Urteurrenerako, lokala

Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos alderdiak bederatzita urte beteko dituela-eta, lokal berria inauguratuko du bihar, hilak 21, 11:00etatik aurrera, Zumaburu kaleko 5. zenbakian. Maiatzeko udal hauteskundeetako zerrenda aurkeztuko diete militante eta jarraitzaileei. Ekitaldian izango dira Lasarte-Oriako alkategai Miguel Angel Tolosa eta Podemos Euskadiko koordinatzaile Pilar Garrido.



Iragan urtean ere mobilizazioak aurrera eraman zituen Gazte Koordinadora Sozialistak. GAZTE KOORDINADORA SOZIALISTA

"Burgesiaren erasoari" batuta erantzuteko deia

Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) bi manifestazio nazional antolatu ditu hilaren 28an, larunbata, 'Enpresari eta agintarien erasoaldiaren aurrean, gazte langileok borrokara!' lelopean, Iruñean eta Bilbon. Azken horretara joateko deia egin du Lasarte-Oriako GKS

Txintxarri

Langileriak eta batez ere behargin gazteek gaur egun bizi duten "ondoezaren" erantzuleak enpresari handiak eta agintariak dira, Lasarte-Oriako GKS taldearen esanetan. "Krisi ekonomikoa denon ahotan dago, eta burgesiaren erasoaren ondorioa da". Hori salatu eta proletariotzaren "batasun politikoa" sustatu asmoz, jakinarazi

du GKS bi manifestazio antolatu dituela hilaren 28rako, larunbata, Iruñean eta Bilbon, 18:00etan, *Enpresari eta agintarien erasoaldiaren aurrean, gazte langileok borrokara!* lelopean.

Azaldu duenez, Buruntzaldeko herritarrei Bizkaiko hiriburura joateko deia egin die. Autobusak antolatzen ari da horretarako, "ahalik eta prezio merkeenean".

Instagram kontuan (https://www.instagram.com/gks_buruntza/) ari da horri buruzko informazioa ematen, eta aurreratu du hiru ibilgailu izango dituztela aukeran mobilizazioetara bertaratu nahi dutenek: 15:50ean, Andoainen (Txopera); eta 16:00etan, Hernanin (Biteri) nahiz Urnietan (anbulategi zaharreko parkina). Interesa duten lasarteoriarrek Instagram

bidez jarri beharko dute harremanetan antolatzaileekin, mezu zuzen bat bidalita. Bilboko manifestazioa Jesusen Bihotza plazatik hasiko da.

Langileen egoerak, "okerrera"

Iazko urtarrilean ere mobilizazio nazionalak aurrera eraman zituen GKS. Urtebete geroago, Lasarte-Oriako GKSko kideek uste dute langileen egoera are gehiago okertu dela, eta batez ere, gazteena. "Joan den urteko urtarrilean ikusten genuen bizi mailaren garestitzea, beharginen soldatak ez igotzea, gazteekiko errepresioaren gorakada... 2022an zehar are gehiago okertu da hori guztia: Kontsumo Prezioen Indizea (KPI) %9 inguru igo da, eligakai eta beste oinarritzko behar batzuk %14 garestitu dira eta soldatak, berriz, %2,6 baino ez dute gora egin; langileen erosahaltenaren jaitsiera nabarmena izan da". Hori guztia ez da naturalki gertatu, "burgesiaren erasoaren parte bat" da. "Klase horrek aurrera eramaten duen estrategia bat da, haien etekinak handitu eta egoeraren pisu guztia proletariotzaren gain jartzeko".

Horri guztiari, gainera, langileekiko eta bereziki gazteekiko errepresioaren gorakada gehitu behar zaio, talde horren aburuz: "Agintariak igotzen ari dira poliziaren aurrekontua, desordena publikoaren delitua gogortu egin dute... Gurekiko jazarpena areagotu egin dute azken urtean".

Aurten ere Iruñeko zein Bilboko kaleak hartuko dituzte GKSkoek, beraz. Eliteen eraso deitoratu eta proletariotzaren batasun politikoa bultzatzeaz gainera, aldarrikatu nahi dute "funtsezkoa" dela langileentzako "instituzio propioak" eraikitzea, politikoki

"independenteak" izango direnak. "Egungo sistema kapitalista gainditzeko politikak garatzeko modu eraginkor bakarra da hori, langileriaren independente politikotik gauzatuko direnak". Horrekin batera, beharrezkotzat jotzen dute politika instituzionalaren jokoa "auzitan" jartzea, "enpresariaren beharrei erantzuten dielako". Bestela esanda, azpimarratu dute estatuko erakundeak "zapalkuntza kapitalistaren kudeatzaileak" direla: "Ordenu hori behin eta berriro errepikatu besterik ezin dute egin". Hortaz, GKS honak hau defendatzen du: "Langileek sortu behar dituzte beraien berezko erakundeak, burgesiarekiko independentzia lortu eta benetako politika emantzipatzaileak aurrera eraman ahal izateko".

Langileriak gaur egun bizi duen egoerari aurre egiteko "tesi koherenteak" planteatzen dituztela iritzita, Lasarte-Oriako GKS herritarrak animatu ditu hilaren 28ko Bilboko manifestazioan parte hartzera. "Mugimendu gazte honek lortu duen batasun politikoa erakutsi eta sustatu behar dugu".

Eskualdeko autobusak

- **15:50ean**, Andoaindik, Txoperatik.
- **16:00etan**, Hernanitik, Biteritik.
- **16:00etan**, Urnietatik, ambulategi zaharreko parkinetik.

Informazio gehiago, '@gks_buruntza' kontuan.



Eman izena urtarrilaren 30a baino lehen:

Ttakun Kultur Elkarte | LASARTE-ORIA

kultura@ttakun.eus 943-37 14 48 • 695 78 53 89



Antolatzaileak



Dozena bat lagun ari dira sukaldaritzako makrobiotiko ikastaroa egiten, Zabaletan. Bigarren saioa bihar izango dute, hilak 21. TXINTXARRI

Hobe elikatzeko aholkuak, hobe bizitzeko

Zabaletako auzo elkarteak antolatuta, sukaldaritzako makrobiotiko ikastaroa egiten ari dira zenbait herritar. Gorka Gereño sukaldariak elikadura mota horri buruzko azalpenak eman dizkie lehen saioan, eta zenbait plater prestatzen irakatsi ere

Maitane Aldanondo

Dozena bat lagunek parte hartu zuten hilaren 14an Basotxo plazako bizilagun elkartearen lokalean egindako ikastaroan. Bi saioz osatua, lehenengo hiru orduak aurrera eraman zituzten, eta bihar, hilak 21, beste hainbeste izango dute zain.

Azukiak sutan jarrita, elikadura osasuntsu baterako osagaiak zerrendatuz hasi zuen saioa Gereño: proteinak, karbohidratoak, mineralak, bitaminak eta lipidoak. “Hori da beharrezkoena osasuntsu izateko, horik ateratzen den guztia bizioa da”, gehitu zuen txantxetan. Elementu horiek nondik lor daitezkeen zehaztu zuen ere. Esaterako, bitaminak algetatik; eta lipidoak, oliotik. Gutxi eta frijitzeko bakarrik baliatzen dute, eta ohartarazi zuen frijitzeko prestatuta dagoena erabili behar dela, 200 gradutan (frijitzeko behar dena) olio erre egiten baita.

Ko aderno eskuetan, bertaratutakoek oharrak hartu

eta galderak ere egin zizkieten, beraiek dakitena baieztatzeko edo zalantzak argitzeko. Nabari zen batzuek gaiaren gaineko ezagutza badutela. Plateren osagaiak prest zituenean, altxa, eta gertutik ikusi ahal izan zuten zertan ari zen sukaldaria. Menua, hauxe: azukia tipula eta azenarioekin, kinoa barazkiekin eta arroz eta hegaluze hanburguesekin, eta granola frutarekin izan zen. Amaieran, elkarrekin dastatu zuten.

Orekatua eta norberaren neurria

Hogei urte daramatza Gereño alor honetan sartuta. Donostiako Intxaurren auzoan jardetzen makrobiotikoa du, baina sukaldari ibilbidean Arzakaren edo Zuberoan ere aritu zen aurretik. Aurreiritzien kontra dihardu. Behin eta berrero errepikatu zituen bi ideia nagusi: ez da muturrera eraman behar eta norberak on egiten diona bilatu behar du. Egia absoluturik ez dago, norberaren arabera da; bakoitzak probatu eta ondorioztatu behar du zerk egiten dion mesede

(edo kalte), dituen beharren arabera. Askok makrobiotikari egotzen dioten zorrotasunaren aurrean, zoratu gabe aritu behar dela uste du, eta nork bere burua asteen sei egunetan zainduz gero, zazpigarrenean “nahi duena” egitea duela dio. “Elikadura aldatu behar da hobe bizitzeko; okerrago bizitzeko ez duzu aldatzen, penitentzia batean bizitzeko”.

Elikagaiak aukeratzera ez genduz hemisferioz aldatu behar, eta bakoitzaren onurak jakiteaz gain, kaltegarri edo txar zer duten ere jakin beharko lukete herritarrek. Oreka da gakoa. Elikagaiak yin (hotza) eta yang (beroa) dira, duten energiaren arabera, eta elkarte egin behar dira, ahal dela muturrekoetara jo gabe, tartekoak erabilita. Adibidez, azukrea eta gatza daude bi muturretan. Oinarria zereal integralak, lekaleak eta barazkiak dira, sasoiokoak ahal dela. Haragia zortzi egunetan behin-edo jan daiteke, hobe zuzia bada: untxia, indioilarra, oilaskoa, oiloa...



NEURE KABUZ

JULEN BASTERRA

Hepa! Gaur ere presaka?

Zenbat aldiz ez dugun erabaki txar bat hartu presaka gabiltzanean... Zirt edo zart egin behar horretan zartako galantak hartutakoak gara. Bidelagun zorrotza baita presa jauna, edota anderea, erabakiak nahi baititu, asko, onak eta ja! Ai, ai, ai... Bakoitzak baldin badu erritmo bat, erritmo bat berea, nolatan nahi dugu izatea azkarra eta uniforme? Gainera, noiz da nahikoa gure ekintzen segida luzea?

Autopistatik ibiltzen naizenean auto-gidari guztiak, ni bezala, abiadura beretsuan doazela ikusten ditut: bai, nahiko azkar. Lanetik etxera ordutegi berdinean bat egiten dugunontzat eta produktioaren erritmo bizkorrean gabiltzanontzat idazten ditut bereziki gaurko hitz eta gogoetak, haien aurpegietan isladatua ikusi baitut neure burua azken bi hilabeteotan. Izan ere, zein zaila den etxera iritsi eta txip aldaketa hau egitea: mentalki erritmoa jaitsi eta lasaiago joatea. Patxadaz aritzearen jarrera praktikara eramatea erronka dela jakitun, teoriaren jardungo naiz, ea lasai nagoen honetan gakoren bat helarazteko gai naizen. Eta ea zuek ere gaurkoan presarik gabe irakurtzeko gai zareten.

“Prisa mata” esaten dute Maroko aldean eta egia da. Baina, “hambre también” erantzuten dugu hozkailua beteta edukitzea gustatzen zaigunoi. Badirudi mamu bat dagoela, ikusezina den munstro bat gure jarduteko forma estrainio honetan. Gosearen mamua da? Pobreziarena? Autoestimua mamua? Betebeharrena? Eta ez denean hil ala biziko kontu bat zer arraioagatik dugu orduan presa? Azken hau nahi nuke azpimarratu: guztiz barneratua dagoen diskurtso mental batek eramaten gaituela egunero presarekin jokatzera. Diskurtso hori azaleratzea norberaren kontua da, behaketa pertsonal baten bidetik etortzen den saria. Nik ez dizuet zehazki hitzez zer gertatzen den esango, ezin baitut, baina, nire kasuan zer ikusi dudak konpartituko dizuet.

Nire presaren erroa esaldi honekin laburbildu dezaket: “Ez dut nahikoa balio”. Sinesmen indartsu bat da, esaldi labur batean asko esaten duena. Autoestimua lotua dago, autoestimua mamuarekin. Ez naizenez gai orain naizena eta dudana balioan jartzeko, ekintzen bidez orekatzen dut nire balioa. Ekintzak ez dira inoiz nahikoa izango, ekintza burutu bezain laster beste bat egin beharrenean aurkitzen bainaiz baliotsua naizela sentitzeko, eta noski, pentsamolde honek presa jaunari luzatzen dio gonbitea.

Bada antidotorik ordea pentsaera honi aurre egiteko. Hauxe esaten diot nik presaren mamu honi: “Edozein ekintza burutu baino lehen, bada iada mundua bizileku perfektu bat. Hortaz, ni neu, munduaren parte naizen hori, ezer ez egiten dudanean ere, perfektua naiz”. Baliotsua naiz, osoa naizelako, izatez. Aitortzen dizuet honek asko lasaitzen nauela, bakea ematen didan egia bat iruditzen zaidalako.

Hala ere, lehen dosia nahikoa ez baldin bada, badut bigarren dosi bat eskura: “Bihotzaren Bidean jardunean aritzen denak ez du inoiz presarik erakusten”. Izan ere, gauzak bihotzez eta patxadaz egiten direnean sentitzen den plazerra guztiz desiragarria den helburu bitala iruditzen zait. Egia da testuinguruak testuinguru beti Bihotzaren Bidean jardutea oso zaila dela, baina, norabideak norabide, autopistatik ateratzen eta gauzak beste modu batera egiten hasi behar naizela sentitzen dut... Arazoa ez delako asko edo gutxi egin, egin ala ez egin, baizik eta bizirik sentiarazten gaituen horri presarik gabe heltzea.

GORKA LASA | ASIER ODRIÓZOLA | GORKA ALVAREZ | JEXUX ARTETXE | MAITANE REBE | **JULEN BASTERRA** | NEREA SEGURA | LIERNI REKONDO | AIZPEA AMAS



Festak saileko arduradun Txus Alonso, Agustin Valdivia alkatea, eta Parte Hartze saileko buru Nagore Duran. TXINTXARRI

Parte hartze prozesua, sanpedroak diseinatzeko

Prozesu parte hartzailea abiatuko du Lasarte-Oriako Udalak herritarrek San Pedro Jaietarako proposamenak egin ditzaten. Iragarri dute otsailaren 12ra arte izango dutela horretarako aukera, eskuorriak beteta edo iritziak sarean emanda

Txintxarri

Iaz bezala, ekainaren 28tik uztailaren 2ra ospatuko dira aurten ere San Pedro Jaiak, eta horiek prestatzeko herritarren iritziak bildu nahi ditu udalak. Horretarako, prozesu parte hartzaile bat abiatuko du, lasarteoriatarrek euren proposamenak helaraz ditzaten.

Proposamenak egiteko bide izango dituzte herritarrek. Batetik, hilaren 23tik aurrera etxeko postontzian jasoko duten eskuorrien bidez. Horiek bete

eta parte hartze postontzietan utzita; kiroldegian, udaletxean, kultur etxean, Emakumeen Zentro Zibikoan eta Gaztelekuan daude bana. Bestalde, sarean egiteko aukera ere izango dute, www.lasarte-oria.eus atarian sartu behariko dute interesdunek, parte hartze atalean.

Iaz bezala, aurten ere hiru multzotan banatu dituzte egin daitezkeen proposamenak. Alde batetik euskal musika taldeak proposatu ahal izango dituzte herritarrek; bestetik, nazio

mailakoak; eta, hirugarrenik, musika taldeak ez diren bestelako jarduerak (antzerkiak, jokoak, eta abar).

Otsailaren 12a izango da aipatu prozesuan parte hartzeko azken eguna; herritarrek bertan iritziak ematera deitu dituzte udal ordezkariak.

Behin prozesu hori amaitutakoan, festak iragartzeko afixaren lehiaketa, eta txupina jaurtiko duen omendua aukeratzeko prozesuak abiatuko dituela ere jakinarazi du.



Hipodromoko zubia zuri-zuri utzi zuen hilaren 18ko txingor jasak. TXINTXARRI

Bat-batean, baina iritsi da neguko denboralea herrira ere

Prezipitazio iraunkorreatatik abisu horia ezarri dute egunotan. Elurrik ez, baina kazkabarrak zuritu du herria

Txintxarri

Eguraldiaren iragarpenei begira aritu gara azken egunotan Lasarte-Orian ere. Neguko denboraleak bete-bete harrapatu du Euskal Herria, eta antzeman da hori Lasarte-Orian ere.

Prezipitazio iraunkorreatatik abisu horia ezarri zuten astelehenean, hilak 16, eta hurrengo eguna, asteartea ere egoera horretan hasi igaro genuen. Goizeko 08:00etan iritsi zen kolore horira herriko estazioaren maila, baina lau ordu geroago, eguerdian berdera jaitsi zela jakinarazi zuen Euskalmet Euskal Meteorologia Agentziak. Egun horietako euriteen ondorioz, Oria ibaia hazita ikus ahal izan dugu.

Asteazken eguerdi partean, berriz, kazkabar erauntsi batek zuri-zuri utzi zituen herriko espalo, errepede, parke, zelai eta gainerakoak. Asterix eta Obelix bezala sentitu ginen tarte batez: zerua gure buru gainera erortzearen beldur. Iragarrita zegoen elur kota nabarmen jaitsiko zela eta 1.000 metrotik behera eror zitekeela, baita kostaldean ere. Txingorra jausi zen Lasarte-Oriara, ordea, elur malutarik ez. Edonola ere, adi egon behar, tenperatura hotzek eta denboraleak jarraitu egingo dutela jakinarazi baitute.

Irristatu eta lurrera erortzeko arriskuaz gain, beste eragozpenik ez du ekarri denboraleak gurera, oraingoz.

bertako -REKIN BAI!
igogailuak | ascensores

DROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei

GIPUZKOA

943 903 450

BIZKAIA

946 523 935

ARABA

945 712 822

NAFARROA

848 870 917

www.bertako.eus

TrukeLandia, eman eta jasotzearen magia

Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkarteak aurrera eramaten duten GurasoLandia programan parte hartzen ari diren guraso eta haurrek saio berezi bat egiteko aukera izango dute hilero, TrukeLandia, ezagutzak partekatze

Txintxarri

Esperientzia, bizipen eta ezagutzak trukatzeko magia izan daiteke. Haurrekin batera egitea, are magikoagoa. Hala nola, ardi bat marraztea eta kotoia erabiltzea ilea irudikatze edo paperezko hegazkinak egin eta urrutira jaurtitzea. Horrelako gauzak eta beste asko egin daitezke TrukeLandian, iazko partaideetako batek, Leire Bardaji herritarrek, hilaren 18ko aurkezpen ekitaldian azaldu zuenez. Porrotx pailazoak, Jagoba Mendizabalek eta Vicky Castrok (hiru aurkezleek) oholtzara igotzera gonbidatu zutenean kontatu zuen hori guztia, eta gauza gehiago ere bai, *Hiru txerri txerri* ipuin ezaguna irakurri zuelako seme-alabekin batera. Bi txikiak arduratu ziren otsoaren ufadak egiteaz, trebe eta txukun, gainera.

Leireren seme-alabak ez ziren izan taula gainera igo ziren haur bakarrak, izan ere, bertan aritu ziren baita ere danbor jotzaileak, kaldereroak eta egurrezko makilekin oles egin zutenak, Santa Ageda bezpera bailitzan, lurra esnarazteko. Emanaldi horien ostean, magia trikimailu polit bi egin zituen

Porrotxek, txikiak liluratuta utzita: ortzadarraren bandera eta Pirritx laguna atera zituen zorro eta egurrezko kutxa banatik, hurrenez hurren. Ondoren, *Zerutik eskura* abestiaren melodia hasi bitartean, koloretako puxikak puztu zituzten gurasoek, oholtzan zeuden umeek eskuetan hartu eta zerura jaurti zituzten, lurrera erortzen utzi gabe. Amaitzeko, talde argazki eder bat atera zuten guztiek elkarrekin.

Izen ematea, zabalik

Egitasmoaren izenak dioen moduan, esperientziak trukatzeko da helburua, hilabetearen behin, GurasoLandian parte hartzen ari diren familien artean. Horietako bakoitzak ezagutza bat partekatuko du besteekin, hala nola errezetak, abestiak, jolasak, ipuinak, eta abar. Antolatzaileek gogoratu dute izena emateko epea irekita dagoela otsailaren 10era arte, ostiralarekin. Aurkezpen saioan

TRUKELANDIAN IZENA EMATEKO EPEA OTSAILAREN 10ERA ARTE DAGO IREKITA, OSTIRALAREKIN

izan zirenek eskuorri bana jaso zuten inskripzioa egiteko, baina badago beste modurik TrukeLandian inskribatzeko: WhatsApp mezu bat bidali beharko dute interesa dutenek 695 78 53 89 zenbakira, edo kultura@ttakun.eus helbide elektronikora idatzi.

Inor ez dadila harritu saio berezi horiek hasten direnean Pupu eta Lore badira partaideetako bi, Porrotxek argi utzi zuelako haurrak animatuko zituela TrukeLandian parte hartzera; bertan egiten dutenaren berri izan ostean "inbidiatan" geratu zela aitortu zuen.

GurasoLeku egitasmoaren adarretako bat da GurasoLandia, GurasoLaguna eta GurasoTegirekin batera. Urte batzuk daramatza martxan, xede honekin: herriko haurrak elebidun oso bihurtzea, familietan euskararen transmisioa bultzatzearen bidez. Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak, Ttakun Kultur Elkarteak, eta herriko ikastetxeek zein euskaltegiek osatzen dute lan mahaia, eta proiektua koordinatzen dute.

TrukeLandiaren aurkezpen ekitaldiko kronika eta argazkiak www.txintxarri.eus atari digitalera igo ditugu.



Magiaz eta kolorez betetako aurkezpen ekitaldia izan da. TXINTXARRI



'Hiru txerri txerri' ipuina kontatu dute Leire Bardajik eta bere seme-alabek. TXINTXARRI



Ekitaldira bertaratu diren haur eta gurasoek argazkia atera dute Porrotxekin. TXINTXARRI

Solaskide izateko epea, hilaren 30era arte

Solaskide egitasmoan izena emateko epea hilaren 30era arte (astelehena) zabalik dagoela gogorazi dute Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak, Ttakun Kultur Elkarteak eta Udala Euskaltegia nahiz Muntteri AEK euskaltegiek. Bi baldintza besterik ez dituzte bete behar partaideek: euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila edukitzea eta asteen behin ordubetez talde batean aritzeko konpromisoa hartzea. Interesa dutenek kultura@ttakun.eus

helbide elektronikora idatz dezakete edo 695 78 53 89 telefono zenbakira deitu.

Solaskide egitasmoa partaideek bi rol izan ditzakete: batetik, Bidelariak, euskara praktikatu nahi duten pertsonak; eta, bestetik, Bidelagunak, euskaraz aritzeko urratsak egiten ari direnei laguntzen dietenak. Taldetxotan biltzen dira eta, normalean, kafe baten bueltan, osteratxo bat emanez edo zaletasunak partekatzen aritzen dira euskaraz, giro ederrean.

Antolatzaileen arabera, Bidelagunen premia dute batez ere, alegia, Bidelariak euskaraz pausua ematen lagunduko dieten pertsonenak. "Hasiberriak direnei bultzadaxo bat emango diezuenon bila ari gara".

Solaskide, Solaslagun, Berbalagun, Mintzlagun... Herrien eta euskalkien arabera hartzen du izena egitasmoak. Lehen taldeak 1993an sortu zituen Donostiako Bagera Euskaltzaleen Elkarteak; ordutik, milaka euskaldunek hautatu dute euskaraz bizi eta aritzea eta, gaur egun, 7.000 lagun inguruk parte hartzen dute Euskal Herri osora zabaldutako den programa horretan.



"Pronostikoen aurka, argi zirrikitu dezente ditu"

HARKAITZ CANO IDAZLEA

Zaldibarreko zabortegean 2020ko otsailan gertatutakoa eta hilabete geroago lehertutako pandemia jorratzen ditu *Hondamendia* obrak. Harkaitz Cano lasarteoriatarak idatzi du testua

Iñigo Gonzalez Sarobe

Axut! eta Artedrama konpainiek *Hondamendia* antzezlan ondu dute, elkarlanean. Hilaren 28an egingo dute obraren emanaldia Manuel Lekuona Kultur Etxean, 20:00etan. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan nahiz Kutxabank Sarrerek atalean eros daitezke.

Ikus-entzuleek oholtza gainean ikusiko duten antzezlanaren mamia Harkaitz Cano idazleak (Lasarte-Oria, 1975) idatzi du. Berarekin hitz egin dugu *Hondamendia*-ri buruz.

Noiz jaso zenuen 'Hondamendia'-ren testua idazteko enkargua?

Obraren zuzendariarengandik, Ximun Fuchs-engandik, duela bi urte eta erdi inguru, pandemiako itxialdiaren ondorengoan.

Zer jorratzen du antzezlanak?

Ximunek argi zuen Zaldibarko zabortegean 2020ko otsailan gertatu zen erauntsiak izan behar zuela gai nagusia, baina aldi berean pandemiak ere presente egon behar zuela.

Nolakoa izan zen sortze prozesua?

Solasaldi dezente izan nituen Ximunekin: nolabaiteko elkarlan bat abiatu genuen eta bion artean erabaki genituen pertsonaiak, hari nagusiak... Egia esan, zalantzak nituen, lan bakar batean jorrazteko gehiegi ez ote ziren



Harkaitz Cano, Euskararen 10. Maratoialdiko gosari literarioan. TXINTXARRI

izango bi gaiak. Hamabi kapituluko telesail bat sortzeko adinakoa izan zitekeen! Aurrera egitea erabaki eta lehen bertsio bat sortu nuen. Gero, hori praktikan jartzen hasi ginen, eszena batzuk oholtza gainera eramaten, Axut! eta Artedrama aktoreen egonaldietan; lau egin zituzten. Intentsoa eta intentsiboa izan da prozesu hori. Funtzionatzen zuenaren arabera berridatzi nuen, aktoreen beraien inprobisazioetatik ere hartu nituen gauzak.

Zer sentituko dute ikus-entzuleek obra ikustean?

Pertsonaien istorioa ikustean, ikus-entzuleek sentituko dute

kontakizuna bera gainera etorriko zaiela, itogarria da batzuetan, garai hori bezala. Dena den, pronostiko guztien aurka, badaude argi zirrikitu dezente, umore arrastoak: txokoan zaudenean, paretaren kontra harrapatuta, autodefentsa moduan ateratzen den umore surrealista edo beltza.

Ezagutuko dute pandemian gertatutakoa, itxialdia; bere burua islatuta ikusiko dute horretan gutzian. Zaldibarrekoa ere berri samarra denez, identifikatuko dituzte hil ziren bi langileekin gertatutakoa adibidez, nahiz eta pertsonaien izenak aldatu ditugun. Behargin horien familiekin ere

hitz egin genuen, oso kontuan izan ditugu.

'Hondamendia'-ren sinopsia irakurtzean, arreta deitu didan esaldi bat irakurri du: "Zaborra batzuetan metafora bat da". Zerena?

Zaratarekin gertatzen den gauza bera, zaborrarekin ere bai: norberak egiten duena ez da zarata, bizilagunak egiten du hori. Norberak, gehienez, hotsa egiten du: hitz egin, abestu... Bada, zaborrarekin ere berdin, erantzukizuna beti da besteena. Obra honetan badago hori ere, ardurari buruzko hausnarketa bat: zerbaiz latza gertatu da eta inork ez du bere gain hartu nahi. **lazko urrian estreinatu zenuen obra. Zer-nolako harrera izan du?**

Axut! eta Artedrama konpainiek publiko oso leiala lortu dute urteetan zehar. Honen aurreko bi obrak, *Amua* eta *Zaldi urdina*, oso estimatuak izan ziren, eta *Hondamendia* ere bai. Erritmo oso bizia du, bi gai nagusi lantzen ditu baina pertsonaia, une, informazio eta elementu asko daude. Aktoreentzat oso-oso obra exigentea da, eta ikus-entzuleei halako itolarri bat eragiten die, bilatua izan dena. Erdi txantxetan, Ximuni eta antzezleei esaten diet iragarki bat prestatu behar dutela: 'Hondamendia, bi aldiz ikusi beharko duzu'. Hainbeste gauza biltzen ditu, behin ikusita dena antzematea ezinezkoa dela.

Sorkuntza prozesura itzulita, zerk erakartzen zaitu antzerkigintzatik?

Asko gustatzen zait, batez ere, eramaten nauelako nire kasa idatziko ez nituzkeen gauzak idaztera. Elkarrekin bidea egitearen eta negoziazio etengabe zein luze baten emaitza da, nekagarria, baina poz asko ematen duena. Badirudi idazleak bakarrik egon behar duela beti, bere gauzatxoak idazten eta bere

obsesioetan murgilduta, eta niri besteenak ere partekatzea gustatzen zait: sinesten dut hori eginez nireen zati bat utzi eta haienak hartuko ditudala.

Komeriak izan dituzue obra 85 minututara mugatzeko?

Hasierako bertsioa luzeagoa zen, 25-30 minutu gehiagokoa. Oso gustura geratu naiz emaitzarekin. Hala ere, beti izaten duzu galera txiki sentipena, testua moztu behar izanagatik, baina jabetzen zara konfiantza izan behar duzula beren ofizioa menperatzen duten aktoreengan, obraren erritmoari mesede egiten diola trinkotze horrek. Etorkizunean antzezlanen bat idatziz gero, beste era batera egingo nituzke zenbait gauza.

Zer, adibidez?

Oro har, literaturatik gatozenok fede gehiegi daukagu hitzengan. Eszenatokian, askotan, nahikoa da hasperen bat. Aktoreekin lan egiten hastean, ohartzen zara zenbat testu dagoen soberan. Nire buruari esaten diot 'asko gutxiago idatziko dut hurrengoan', hori da desafioa, eta hala ere, ez dut lortzen (barreak). Kosta egiten zait belarri literariotik urrunduta eta belarri performatibo bat lantzea.

Argitaratu berri duzu 'Pozaren erdia' poema liburua eta 'Ni ez naiz Mikel Laboa' album ilustratuan parte hartu duzu. Zer gehiago duzu eskuarte?

Azken hilabeteak karpetak ixtekoak izan diren bezala, berri batzuk irekitzekoaren fasean nago orain. Ez daukat gauza zehatz gehiegirik horizontean. Poema liburu bat atera berri dut molde klasikoan, eta baditut beste hainbat olerki justu beste muturrean daudenak, anarkikoak eta libreak. Horiek antolatuko ditut, beharbada. Agian, broma bat egingo dut: *Pozaren beste erdia* deituko diot liburu horri (barreak).

EPA LASARTE HHI

MATRIKULA ZABALIK, urtarrilaren 26tik otsailaren 3ra

- **Lehen Hezkuntza** (Kultura orokorra. Ingelera, Gaztelania, Idazmena eta Irakurmena. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...).
- **Bigarren Hezkuntza** (DBHko titulua lortzeko moduluak).
- **Gaztelania atzerritarrentzat.**
- **EUSKARA** (1-2 mailak).



Aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu!

Ikastetxeetan hasi da danbor festa

Ohi bezala ospatu dute jaia

Landaberri LHkoak izan ziren San Sebastian egunaren bezperan (hilak 19) jotzen lehenak. 15:00etan hasi dira geletatik irteten, ordenean, eta anfiteatroa betetzen, urtero bezain ikusgarri. Dianarekin ekin zioten danborradari, eta atzetik jo zituzten *Donostiako Martxa*, *Tatiago*, *Lasarteko Martxa* eta Realaren ereserkia. Bukatu ostean, talde argazkiak egin dituzte banan-banan, eta geletara erretiratzen ari zirela, Athletic futbol taldearen doinua ere jo zuten.

Ikastetxeko txikiek, aldiz, Garaikoetxeako gimnasioan egin zuten saioa, txandaka. Maria Dolores Iturbe eta euren ikaskideen zuzendaritzapean, Sarriegiren doinuen erritmora astindu zituzten danborrak. Eta *Tatiago* zein Realaren ereserkian ederki dantzatu eta urratu zituzten eztarriak kantuan.

Horien ostean entzun ziren danbor hotsak Sasoeta ikastetxean; Zumaburukoekin batera, gimnasioan egin zuten aurtengo ospakizuna. Sardeska eta goilara urdindun kapela zuriz bete zuten eraikina. Sukaldariz jantzita gehienak, danborrak gerrian lotuta eta egurrezko makilak eskuetan agertu ziren zuzendari lanetan aritu diren ikaskideen aurrera. Txukun-txukun gidatu zituzten danbor jotzaileak, eta horiek ere trebetasun handiz jarraitu zituzten aginduak. Irakasle eta gurasoek bat egin zuten beraiekin, eta askotariko doinu ezagunak jo zituzten denek elkarrekin. Horien artean entzun ahal izan ziren Lasarte-Oriako ereserkia eta baita Errealarena ere.



Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko ikasleek ere trebeziak eta gogoz astindu zituzten danborrak San



Zuzendariak fin-fin gidatu zituzten ikaskide eta irakasleak. TXINTXARRI



Landaberriren Zubietako eraikineko anfiteatroak itxura ikusgarria izaten du beti. TXINTXARRI



Landaberri LHko ikasleek gogotik gozatu zuten danborrak jo bitartean. TXINTXARRI



Sebastian bezperan. Doinu ezagun ugari jo zituzten arratsaldean zehar. TXINTXARRI



Kapela eta jantzi zuriak soinean, dotore agertu ziren Sasoeta ikastetxeko gimnasia. TXINTXARRI



Ikasleekin batera jo zuten danborra Sasoeta-Zumaburuko ikasle eta gurasoek ere.



Garaikoetxea Landaberriko haurrek gimnasioan txandaka egin zuten saioa. TXINTXARRI



Maria Dolores Iturbe eta ikasle batzuek zuzendu zuten danborrada. TXINTXARRI



Sarriegiren kanten erritmora dantzan ere egin zuten irakasle eta haurrek. TXINTXARRI

Diaz de Gereñu eta Urdanpilleta, txapeldun

Gipuzkoako Trinkete txapelketako kadete zein jubenil mailako neurketak jokatu dira, Iruran. Jubenil mailan, Intza Pilota Elkarteko bikotea nagusi izan da eta Gazteleku garaitu du, 21-40. Pilotariak modalitateko banakako lehia hasiko dute hilaren 21 ean

Txintxarri

Intza Pilota Elkarteko jubenilek Trinketeko garaikurra jaso dute. Irurako Ametsa trinketean Gipuzkoako txapelketako bi final jokatu ziren hilaren 15ean. Neurketa interesgarriak ikusi ahal izan zituzten trinketeko zaletuek.

Kadeteen Behar Zana 3 eta 1 bikoteen arteko lehiak eman zion hasiera jardunaldiari. Amasa-Villabonako pilota taldeko hirugarren bikoteak eraman zuen saria, 40-20.

Bigarren partidari izan zen berri ona Intza pilota elkartearentzat. Diaz de Gereñu eta Urdanpilleta jubenil bikoteak Gazteleku izan zuten aurrez aurre eta herritarrak nagusi izan ziren.

Sendo hasi zuten neurketa Intzako gazteek eta 0-9 aurreratu ziren markagailuan.

Hala ere, Andoingo J. Cestau eta B. Salvador bikoteak erasoari erantzun eta puntuetan gerturatzea lortu zuen, 10-14.



Intzako Urdanpilleta eta Diaz de Gereñu, txapelketako garaikurrekin. INTZA PILOTA ELKARTEA

Ez zen nahikoa izan, ordea; Intzako bikoteak neurketako kontrola hartu eta markagailuko aldea handitzen joan zen garaipena erdietsi arte. Azken emaitza Gazteleku 21-40 Intza KE izan zen.

Era honetara, iaz Udaberri txapelketako jubenilen 2. mailan egin antzera, Haritza Diaz de Gereñuk eta Peru Urdanpilleta gazteek trinkete modalitateko txapela eta garaikurra eskuratu zuten.

Jose Felix Solano Intzako arduradunaren hitzetan, "jubenilek neurketa bikaina egin dute. Maila ederra erakutsi dute".

Eskuz banakakoa

Baina jubenilek ez dute euren bikotekako garaipena lasai ospatzeko astirik izango; hilaren 21ean, trinketeko eskuz banakako lehiari emango diote hasiera. Ez dira Lasarte-Oriako pilota taldeko ordezkaririk bakarrik izango, Beñat Olazabal eta Pedro Elosegui gazteek ere txapelketa horretan parte hartuko dute.

Intzako kideak bi multzo ezberdinetan daude banatuta - Diaz de Gereñu eta Olazabal A multzoan eta B taldean, aldiz, Urdanpilleta eta Elosegui- eta gogor hasiko dute lehia; lehen jardunaldian elkarren aurka jokatu beharko dute.

Bi lehiatan

Eta ez hori bakarrik, Intzako lau pilotari horiek Udaberri bikotekako txapelketari hasiera eman zioten hilaren 13an eta 14an.

Diaz de Gereñu eta Urdanpilletak jubenil 1. mailako hitzordua izan arren, ez zuten partidari jokatu; aurkariak, Ilunpe 2 bikoteak lehiaketa utzi baitu.

Olazabal eta Elosegui, aldiz, bigarren mailan ari dira. Hilaren 14an, Hernaniren aurka lehiatu zuen herriko pilota elkarteko bikoteak neurketa Michelin kirol guneko pilotalekuan.

Etxeko bikoteak ezin izan zuen X. Iturbe eta O. Legorretak osatutako bikotea gainditu. Nahiz eta aurkaria markagailuan nagusi izan (5-22), Intzako pilotariak ederki borrokatu zuten.

Bestalde, lehiaketa horretako Nagusien 1. mailan bada beste lasarteoriatarrik, Jon Pello Artetxe.

Behar Zana elkartearekin lehiatzen ari da denboraldia herritarra eta I. Lizaso bikote lehen mailako norgehiagokan parte hartuko du.

Lehen jardunaldian, Tolosako Altuna-Beloki bikotearen aurka neurtu dituzte indarrak eta 15-22 gailendu dira tolosarrak.

Txikiek ere garaipena

Txapelketa horiez gain, Intza Pilota Eskolako gaztetxoak ere pilotalekuan borrokan ari dira. Errendimendu mailako alebinek Gipuzkoako lehiaketako lehen jardunaldiari egin zioten aurre hilaren 14ko asteburuan.

1. mailako bikoteak atsedena izan zuen. Bigarren mailakoak, ordea, hasiera ederra izan du; Hernani 2 izan zuen aurkari Michelin kirol gunean eta 16-6 irabazi zuten.

Markel Lopez eta Eñaut Huizi gaztetxoek partida ederra egin zuten euren zaletuen aurrean. Intzako alebinek eroso jokatu zuten partida kontrolpean izan eta nagusitasunez gainditu zuten E. Barrenetxea-A. Iglesias bikotea.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

| |
|--|
| FUTBOLA |
| SUPER KOPA, FINALA |
| Real Sociedad - (FC Barcelona - Real Madrid) |
| Igandea. 12:00. Jose Fouto est., Meridan. |
| OHOREZKO ERREGIONAL MAILA |
| Zumaiaiko FT - Ostadar SKT |
| Larunbata. 16:30. Aita Mari, Zumaian. |
| GORENGOEN MAILA |
| Ostadar SKT - Euskalduna SD |
| Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean. |
| OHOREZKO JUBENIL MAILA |
| San Marcial CD - Ostadar SKT |
| Larunbata. 15:30. San Jose Obrero, Irunen. |
| OHOREZKO KADETE MAILA |
| Ostadar SKT - Kostkas KE B |
| Larunbata. 10:00. Michelin kirol gunean. |
| OHOREZKO INFANTIL MAILA |
| Ostadar SKT - Igeltegi de Donostia CF |
| Larunbata. 15:15. Michelin kirol gunean. |
| INFANTIL 1. MAILA |
| Texas Lasartearra CF - Ostadar SKT A |
| Larunbata. 12:00. Michelin kirol gunean. |
| Ostadar SKT B - Intxurre KKE |
| Igandea. 10:30. Michelin kirol gunean. |

| |
|---|
| INFANTIL F-8 |
| Arrupe Chaminade CD B - Ostadar SKT |
| Larunbata. 13:45. Felix Garin, Donostian. |
| ARETO-FUTBOLA |
| 1. MAILA |
| Eguzki Arkupe Rehab. - Euskalduna SD |
| Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol. |
| 2. MAILA |
| Tiakun AFE - Eguzki ISU Leihoak |
| Ostirala. 22:30. Zubiaurre kirol., Azkoitian. |
| GAZTEEN MAILA |
| Eguzki Bodegas Ayesa - Eskoriatza KE |
| Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol. |
| INFANTIL MAILA |
| Eguzki AF - Lauburu KE Ibarra |
| Larunbata. 11:10. Maialen Chourraut kirol. |
| SASKIBALOAIA |
| SENIOR 3. MAILA |
| CD Internacional - Ostadar SKT |
| Igandea. 16:30. Mons kir., Donostian. |
| KADETE ERRENDIMENDUA |
| Eskoriatza KE - Ostadar SKT |
| Larunbata. 09:30. Manuel Muñoz kiroldegia, Eskoriatzan. |

| |
|---|
| KADETE PARTAIDETZA |
| Ostadar SKT - Sebal ISB |
| Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol. |
| INFANTIL ERRENDIMENDU URREA |
| Ostadar SKT - Easo Basket Mendiola |
| Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kirol. |
| INFANTIL ERRENDIMENDU ZILARRA |
| Ostadar SKT Urdina - TAKE Urbinox |
| Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol. |
| BOLEIBOLA |
| EUSKAL LIGA |
| CV Sestao - Ostadar SKT |
| Larunbata. 18:00. La Benedicta kir., Sestaon. |
| EUSKAL LIGA, 2. SENIOR |
| Ostadar SKT - Ekialde |
| Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol. |
| JUBENILA |
| Tolobolei (SN) - Ostadar SKT |
| Igandea. 10:00. Uzturpe frontia, Tolosan. |
| PILOTA |
| TRINKETA BANAKA, JUBENILAK |
| Intza (Olazabal) - Intza (Diaz de Gereñu) |
| Larunbata. 10:30. (1. partida) Ametsa trinketa, Iruran. |
| Intza (Elosegui) - Intza (Urdanpilleta) |
| Larunbata. 10:30. (3. partida) Ametsa trinketa, Iruran. |

| |
|--|
| UDABERRI TX., JUBENILAK 1. MAILA |
| Intza - Oiarpe 1 |
| Igandea. 11:00. (2. partida) Michelin kirol guneko pilotalekuan. |
| UDABERRI TX., JUBENILAK 2. MAILA |
| Bergara - Intza |
| Ostirala. 20:00. (3. partida) Udalekoa, Bergaran. |
| ERRENDIMENDUA, ALEBINAK 1. MAILA |
| Intza - Hernani 3 |
| Igandea. 11:00. (2. partida) Michelin kirol guneko pilotalekuan. |
| ERRENDIMENDUA, ALEBINAK 2. MAILA |
| Ziotza 2 - Intza |
| Ostirala. 18:30. (2. partida) Intxaur, Zizurkilan. |
| ERRUGBIA |
| EUSKAL LIGA, OHOREZKO B MAILA |
| Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Ekin eraikuntzak Arratiko Zekorrak RT |
| Igandea. 11:25. Michelin kirol gunean. |
| 16 URTEZ AZPIKOA |
| Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Arrasate RT |
| Igandea. 10:00. Michelin kirol gunean. |
| 14 URTEZ AZPIKOA |
| Beltzak Errugbi Eskolako Iker Carrillo kideak Gipuzkoako selekzioako entrenamendu saioa izango du. |
| Larunbata. Goiza. Hondarribian. |

| |
|--|
| IGERIKETA |
| KZL TEST LIGA |
| Buruntzaldea IKTKo benjaminen KZL Test Ligako bigarren jardunaldia lehiatuko dute. |
| Larunbata. 16:00. Usabal kir., Tolosan. |
| ATLETISMOA |
| EUSKADIKO TXAPELKETA |
| Ostadar Atletismoa saileko zein herriko atletek absolutu mailako Euskadiko txapelketan parte hartuko dute. |
| Larunbata eta igandea. Antonio Elorza belodromoa, Donostian. |
| PROBA LIBREA |
| Ostadar Atletismoa saileko atletek aire libreko jaurtiketa luzeen proba jokatu dute. |
| Igandea. 12:15. Kote Olaizola Mini Estadioa, Donostian. |
| XAKEA |
| 3. MAILA |
| Taula Xake Kluba - Hondarribia Marlaxka D |
| Larunbata. 16:00. Blas de Lezoko lokalean. |

Herritarrek, bost domina Gipuzkoako txapelketan

Lasarte-Oriako atletak pista denboraldiko Gipuzkoako txapelketako podiumean izan dira. Urrezko domina bat eta lau zilarrezko jantzi dituzte herriko ordezkariak eta marka pertsonalak ere ondu dituzte. Euskadiko kros txapelketan ere lehiatu da herritarrik

Txintxarri

Hilaren 14an, Donostiako Antonio Elortza belodromoan pista estaliko Bizkaiko zein Gipuzkoako txapelketak lehiatu zituzten. Ostadar Atletismo saileko Naroa Furundarena, Oihana Igarritz eta Oinatz Almagro, Real Sociadadeko kide Yeray Veroniz zein Aloña Mendiko Jon Presa. Lasarte-Oriako bost atleta horiek euren probetako podiumetan izan ziren.

Furundarenak lortu zuen garaikur nagusia; jauzi hirukoitzean jantzi zuen urrezko domina. 12,60 metroko jauziarekin lehiaketako buru izan zen eta Espainiako txapelketarako gutxienezkoa lortu zuen herritarrek.

Gizonezko mailako proba berean ere izan zen dominarik. Oinatz Almagrok Gipuzkoako bigarren postua eskuratu zuen bere marka pertsonala gaindituz, 12,19 m.

Pisuko proban batu zuen Ostadarrek hirugarren domina. Oihana Igarritzek 10,30 metroko jaurtiketari esker, zilarra jantzi zuen.

Gainerako bi dominak 60 metroko finalean eta 1.500 metroko lasterketan eskuratu



Oinatz Almagro, jauzi hirukoitzeko proban. OSTADAR ATLETISMO SAILA

zituzten herritarrek. Realeko Veronizek bigarren postua (6,91) erdietsi zuen abiadura proban. Aloña Mendiren izenean lehiatzen den Presa ere postu berean sailkatu zen 1.500 metroko lasterketan. Bere marka pertsonala ere berdindu zuen (04.08,42).

Horiez gain, herriko taldeko beste bi kideren jarduna ere azpimarratu behar da. Alex Alkainek, esate baterako, 60 m. lasterketako finalaurrekoan marka berri (7,23) eta finalean lehiatu zen zazpigarren sailkatuz. Abiadurako proba motzean ere marka pertsonala egin zuen Unax Riezuk (7,45).

Bestalde, Jon Presak ez zuen atsedetik izan asteburuan.

Euskadiko kros txapelketa

Domina jantzi eta orduetara, Ortuellan zeuden beste bi herritarrekin batera –Aimar Sukuntza eta Unax Goenaga– Euskadiko kros txapelketan parte hartu zuen Presak. Ibilbideko lokatzari eta hotzari aurre egin behar izan zieten parte hartzaileek.

Absolutu mailan konpetitu zuen Presak eta 33.37ko markari esker, hamalagarren postuan amaitu zuen proba. Kategoria berean lehiatu zen Zumeatarra taldeko Sukuntza ere. Gazteak 34.39 egin zuen helmugan.

Goenaga, aldiz, 20 urtez azpiko lehiaketan izan zen. Lehen hamarren artean amaitu zuen lasterketa eta 28.01eko denbora egin zuen.

Harrobia ere, lanean

Horrez gain, Ostadar Atletismoa saileko eskolako arduradunek jakinarazi dute atletismoan bere lehen pausoak eman nahi dituzten benjamin, alebin eta infantil mailako haur eta gaztetxoek aukera dutela izena emateko.

LOTMEk Nerbioiko ur-jauzietara egingo du urteko lehen irteera

Mendi elkarteak 2023 urtean zehar egingo dituen ibilbideak jakitera eman ditu; zazpi izango dira

Txintxarri

Mendiko zaletuek gailur ugari igotzen dituzte urtean zehar. Bakarkako plana da batzuetan, eta besteetan, lagunartean edo elkarteren baten laguntzarekin egitekoa. Azken horietako bat Lasarte-Oria Trail Mendi Elkartea (LOTME). Sortu zenetik euren bazkide eta lagunekin maila ezberdinetako ibilaldiak egiteko aukera eskaintzen du eta 2023an egingo dituen irteerei buruzko informazioa argitaratu du herriko taldeak bere webgunean.

Lehena, otsailaren 12an izango da. 19 kilometroko ibilbidea eginez Nerbioiko ur-jauzia eta bere inguruak ezagutzeko aukera izango dute otsailaren 9a baino lehen izena ematen duten bazkide

2023 urteko ibilaldiak

- **Otsailak 12**
Nerbioi ur-jauzia.
- **Martxoak 12** Aratz.
- **Apirilak 16**
Erlo - Xoxote - Kakute.
- **Maiatzak 21**
Lekunberri - Uhartea Arakil.
- **Ekainak 25**
2. Martxa familiarra.
- **Urriak 21-22**
Garmo Negro.
- **Abenduak 17** Txindoki.

eta herritarrek. Bidearen xehetasunak eta txangoaren prezioak LOTMEren webgunean daude eskuragarri.

Kirol abonua eguneratzeko kanpaina, martxan

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak abonuen eguneraketa egiten ari dela jakinarazi du.

Hori dela eta, bazkideei euren abonamendua indarrean dagoela egiaztatze eskaera egin du udalak.

Era berean, moldaketarik egin behar duten erabiltzaileei Kirol Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko deia ere egin die.

Abonuen urteko kuota honakoa da: Familiarra, 260 euro; 18 urtez gorako tarifa, 171 euro eta adin txikikoena, aldiz, 107 euro.

Izapideak gauzatzeko erabiltzaileek 943-37 61 82 telefonora deitu, kirolak@lasarte-oria.eus helbide elektronikora idatzi edo Maialen Chourraut kiroldegiko bulegora hurbildu behar dute. Bulegoko ordutegia astelehene ostiralera, 9:00etatik 13:00etara da; asteazken arratsaldetan ere irekia dago, 17:00etatik 19:00etara.

Bigarren mailara igoera, Taula Xake Klubaren helburu

Taula Xake Kluba Gipuzkoako Ligako hirugarren mailan lehiatuko da; Hondarribia Marlazka da lehen aurkaria

Txintxarri

Xakeko Gipuzkoako Liga hasi da. Hilaren 14an eta 15ean, jokatu zuten lehen jardunaldia maila ezberdinetako taldeek. Lasarte-Oriako Taula Xake Klubak atsedena izan zuen eta hilaren 21ean emango dio hasiera lehiari.

Hirugarren mailan parte hartuko du herriko taldeak eta helburu garbia dute mailaz

igotzea. "Iaz hirugarren sailkatu ginen eta igoerako atarian geratu ginen. Aurten helburua igoera izango da", adierazi digute Taulako kideek.

Jose Ignacio Etxeberria, Juan Cruz Figueras, Alex Sanchez eta Juan Luis Varela izango dira jardunaldiz jardunaldi bigarren mailara igotzeko borrokatuko diren kideak.

Esperientzia eta formakuntza lortzeko asmoarekin 2022 urtean entrenamendu saioak gehitu eta bakarkako torneo ezberdinetan jardun dira Taulako kideak. "Ostiraletan 17:00etatik 20:00etarako gure lokalean egiten ditugun saioez gain, bestelako entrenamenduak ere egin ditugu", azaldu dute.

Denboraldi honetako lehen aurkaria Hondarribia Marlaxka D taldea izango da. Hitzordua hilaren 21ean, larunbatarekin, 16:00etan izango da Taula Xake Taldeak erabiltzen duen Blas de Lezo kaleko lokalean.

Hurrengo jardunaldietan, berriz, Bidasoa E, Zumaiako C



Taula Xake Klubak antolatutako Lagunarteko txapelketako irudia. TXINTXARRI

eta D, Agustin de Leiza B, Txaturanga, Domusa Azpeitia B eta Billabona E izango ditu

aurrez aurre. Pausoz pauso Taula Xake Klubeko kideak euren xedea lortzeko egingo dute lan.

Racamonde garaile, herritarren arteko lehian

Euskal Ligako zortzigarren jardunaldian, Ohorezko Mailako Hernani-Gaztedi neurketa jokatu dute. Paola Vega (Hernani) eta Aizpea Racamonde (Gaztedi) herritarrak elkarren aurka jardun dira. Norgehiagoka borrokatua izan da eta Gaztedi gailendu da

Txintxarri

Hernaniko Landare zelaian, hilaren 15ean, Hernani eta Gaztedi taldeak izan ziren aurrez aurre Euskal Ligako Ohorezko mailako jardunaldian. Lasarte-Oriako taldeak izan ez arren, herritarren arteko errugby norgehiagoka izan zen; bata zein besteko hamabostekoko kide bana –Paola Vega Hernaniren kasuan eta Gaztediko Aizpea Racamonde– lasarteoriatarak dira. Eguraldia alde batera utzita, neurketa gogorra jokatu zuten. Bi taldeak azken postuetan zeuden sailkapenean eta puntuak beharrezkoak zituzten gora egiteko. Azkenean, Gaztedik eraman zuen saria; 5-15 irabazi zuten Racamondearen taldeak eta laugarren dago taulan.

Hernanik ez zuen lan erraza. Hamasei jokalarirekin aurkeztu zen neurketara eta zazpigarren minutuan, jokalaria batek orkatila bihurritu ostean zenbaki hori murriztua ikusi zuen. Hala ere, ongi eutsi zieten hernaniarrek Gaztediko enbatei eta 19. minutura arte ez zuen Gasteizeko taldeak entsegu marra igarotzea lortu.

Etxeko taldeak ez zuen amore eman, ordea, eta hurrengo minutuetan eraso eta defentsa jokaldi ugariz gozatu zuten zaletuek. Horietako batzuetan herritarrak izan ziren protagonista. Racamondek



Paola Vega herritarra, Hernaniren eraso antolatua nahian. KRONIKA

Vega plakatu eta lurrean amaitu zuten biek, esate baterako.

Nahiz eta lehen zatia amaieran Hernaniko kirolariak neke sumatu, ederki eutsi eta geratzen ziren minutuetan markagailuan aldaketarik ez egotea lortu zuten.

Atsedendialdiaren ostean, aldiz, ausart agertu zen Hernani; hamahiru jokalaria zelairatu zituen eta erasoan jokatu zuen. Egoera horrek zelaiko alboak libre utzi zituen eta hortaz baliatuz, gasteiztarrek bigarren entsegu egin zuten.

Markagailua kontrakoa bazen ere, etxeko taldeak bigarren zatiko hasierako planteamendua jarraitu eta eraso eraso Gaztedi bere eremuan sartzea lortu zuen.

Alabaina, 65. minutuan, Hernanik pase batean huts egin eta Gaztedik aukera ederki aprobetxatu zuen aldea handitzeko.

Horren ostean, etxekoen egoerak okerrera egin arren – hamabi jokalariren geratu zen Hernani–, metroak irabazi eta entsegu marrara iristeko ahaleginak egiten jarraitu zuen. Hala nola, Vega herritarra behin baino gehiagotan saiatu zen aurrera egiten, baina ezin izan zuen Gaztediren defentsa hautsi.

Eta 80. minutuan, fruitua jaso zuen Hernaniren lanak entsegu baten bitartez.

Bi taldeen arteko borroka azken minutura arte iraun zuen, baina ez Heranik ezta Gaztedik ere ez zuten arriskuko aukerarik sortu.



Klubaren arteko kopan lehiatu ziren igerilarietako batzuk. BURUNTZALDEA IKT

Buruntzaldea IKTko igerilariak, marka eta gutxieneko berriak

Igeriketa taldeko kideek Gipuzkoako Klubaren Arteko Kopa lehiatu dute. 22 marka pertsonal ondu dituzte

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko absolutu, jubenil eta infantil mailako 11 igerilari Irungo Azken hildaren 14an eta 15ean, Gipuzkoako Klubaren Arteko Kopan lehiatu.

Aurten Gipuzkoako talde guztiak maila berean lehiatu dira, ez da A edo B mailarik berezi. Igeriketa taldea emakumezko zein gizonezko lehian lehen postuetan izan ez ziren arren, bakarkako probetan 22 marka pertsonal ondu eta txapelketa garrantzitsuetarako zenbait gutxieneko ere eskuratu zituzten.

Unai G. Somovilla, June Lopez, Saioa Elola, Garazi Etxeberria, Iker Gorostegui, Alba Escribano, Miren Sarobe, Irati Etxeberria, Mayi Gorostegui, Ane Meyer eta Amaia Iparragirre izan ziren proba ezberdinak burutu zituzten kideak. Igeriketa taldeko arduradunek adierazi dutenez, "ezin izan dugu nahi bezala bete proba programa osoa, gizonezkoetan batez ere (bi kide lehiatu dira) eta horretaz gain, lesio edota bestelako egoeren ondorioz, ez genuen aukerarik podiumean egoteko".

Hala ere, lau jardunaldi aurre egin zieten Buruntzaldea IKTko kideek eta emaitza txukunak izan direla onartu dute entrenatzaileek; emakumezkoek bederatzigarren postua eskuratu dute eta gizonezkoek hamahirugarrena. "Giro paregabea izan zuten gurek eta

ustez, honek nork bere proban jarritako esfortzuan lagundu zuen", adierazi dute.

Emakumezkoen kasuan, erreleboetako probak nabarmendu dituzte: "Igerialdi guztiei aurre egin behar izan zieten (guztira bost) haien proba indibidualez gain eta esan beharra daukagu, oso txukun aritu zirela, kasu gehienetan marka hobekuntzak egon zirelarik".

Era berean, igeriketa taldeko prestatzaileek June Lopezen jarduna azpimarratu nahi izan dute. Lesio baten ondorioz berriro lehiari hasi zen gaztea. Erreleboetan bere denboretatik gertu ibili zen eta bere proban, 100 m. bizkarren, marka pertsonala egitea lortu zuen.

Markak eta gutxienekoak

Markei dagokionez, 22 marka pertsonal berri lortu zituzten igerilari gazteek eta horietako batzuk Euskal Herriko txapelketarako zein infantil mailako Gipuzkoako Udako gutxienekoak dira.

Hala nola, Iker Gorostegui 100 m. tximeletan eta arestian aipatutako, June Lopezen marke Euskal Herriko txapelketan egotea ziurtatzen die Buruntzaldea IKTko bi kideei.

Horiez gain, oraindik hilabeteak falta diren arren, Mayi Gorostegui eta Ane Meyerrek infantil mailako Udako txapelketarako sailkapena eskuratu dute.

Euren onena erakutsi dute

Errugbi eskolen topaketa izan zen hilaren 15ean, igandearekin, Michelin kirol gunean. Etxeko Beltzak errugbi eskolako kideek Bera Bera, La Unica, Hernani, Atletico San Sebastian eta Zarautzeko gaztetxoek bisita jaso zuten.

Hotzari aurre egiten lehenak, 12 urtez azpiko taldeak izan ziren. Plakaje, mele eta lasterketa ederrak



Hernani eta La Unica errugbi eskolako gaztetxoak lehiatu. TXINTXARRI

egin zituzten eurpean entsegu marrara iritsi nahian.


Eskoletako 10 urtez azpiko txikiek ere euren trebezia erakutsi zuten. Aurkariei iskin egin ostean, ugariak izan ziren gaztetxoek lortutako entseguak.

Amaitzean, guztiek ederki gozatu zuten Beltzak RTko betenarok prestatutako hirugarren denboraz.

ZORION AGURRAK



Saioa
Zorionak Saioa, egun ona pasa! Ama, aita eta lkerren partetik.



Nahia
Eu Martinho!!! 22 muxu potolo Euskal Herriatik Katalunyarara. Etxeko guztien partetik!



Maren
Zorionak goxoki zure 7garren urtebetetzean. Muxu pila bibixto, maite zaitugu.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.


Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 20



Larunbata, 21



Igandea, 22



Astelehena, 23




Asteartea, 24



Asteazkena, 25



Osteguna, 26



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 20 GANDARIAS-URIBE
LARUNBATA, 21 DE MIGUEL
IGANDEA, 22 DE MIGUEL
ASTELEHENA, 23 DE ORUE
ASTEARTEA, 24 DE MIGUEL
AZTEAZKENA, 25 LASA
OSTEGUNA, 26 GIL

EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
 DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
 K. Aizpuru Odriozola: Labumbe Berri 11, Hernani. 943 33 60 77

'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
 Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29
 EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
 KIROLDEGIA: 943-37 61 82
 MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA:
 943-37 61 81
 GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
 KIUB: 943-36 16 05
 UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
 MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
 DYA: 943-46 46 22
 GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
 UDALTZAINAK: 943-36 24 42
 ERTZAINZA: 943-53 88 40
 SOS DEIAK: 112



Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.

Deitu 943-37 14 48 telefonora,
 bidali haurraren izen-abizenak
 eta jaiotze data

txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora
 edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

OHARRA

Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera.

Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

Eta txistua aspaldi alboratu zenuelakoan herdoilduta zaudela uste baduzu, zaude lasai. 19:00etan etor zintezke, eta gutxinaka-gutxinaka garai bateko soltura berriro hartu. Zatoz, primeran pasatuko duzu-eta!



SUDOKUA

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 6 | | 9 | | | 2 | 5 |
| | 9 | 1 | | 3 | 2 | 7 | 8 |
| 7 | | | 8 | | | 1 | |
| | 7 | 4 | 8 | 6 | 3 | 2 | |
| 9 | | 6 | | 5 | | | |
| | 8 | | 4 | | 9 | | 6 |
| 6 | | 7 | 3 | | | 1 | 2 |
| 2 | | | | | | 3 | |
| | 5 | | | | | | 4 |

Sudoku10.net

txintxarri

jarraitu herriko albisteak sarean



www.txintxarri.eus

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA
ALOKAIRUA
Logela bat alokatzen dut emakume batentzat, etxebizitza partekatut batean, Lasarte-Oria erdialdean. Giro lasaia. Harremanetarako zenbakia, 666 32 05 20.

LANA
ESKARIA
Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota ebeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota ebeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Adineko pertsonak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Paperak behar bezala ditut eta eskarmentua. Harremanetarako zenbakia: 648 90 67 82.

Kurtsuan zehar haurrak arratsalde zaintzeko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia, 695 18 41 79.

Adineko pertsonak zaintzeko prest nago. Esperientzia dut eta baita paperak ere. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10. Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79. Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

SALEROSKETA
SALDU
Su egurra saltzen da (haritza), tximinirako,

ekonomikarako... Harremanetarako zenbakiak: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

BESTELAKOAK
HEZKUNTZA
Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest dagoena, goizez nahiz arratsalde. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

| Antxisu | Zabaleta | Atsobakar | Kotxerak |
|---------|----------|-----------|----------|
| 08:00 | 08:10 | 08:15 | 08:20 |
| 08:40 | 08:50 | 08:55 | 09:00 |
| 10:30 | 10:40 | 10:45 | 10:50 |
| 11:00 | 11:10 | 11:15 | 11:20 |
| 11:30 | 11:40 | 11:45 | 11:50 |
| 12:05 | 12:15 | 12:20 | 12:25 |
| 12:30 | 12:40 | 12:45 | 12:50 |
| 13:00 | 13:10 | 13:15 | 13:20 |
| 13:30 | 13:40 | 13:45 | 13:50 |
| 16:30 | 16:40 | 16:45 | 16:50 |
| 17:00 | 17:10 | 17:15 | 17:20 |
| 19:30 | 19:40 | 19:45 | 19:50 |
| 20:00 | 20:10 | 20:15 | 20:20 |

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:
Lide Hidalgo, Uxue Odriozola,
Julene Iraola, Egoitz Epelde,
Endika Merchan, Gorka Morales,
Sergio Hernandez, Ander Hazas
eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 20

URNIETA Antzerkia

Forever antzezan mutua estreinatuko du Kulunka Teatroak. Sarrerek 5 euro balio dute. Sarobe Arte Eszenikoan Gunea, 19:00etan.

IGANDEA 22

LASARTE-ORIA Dantza

Plaza Dantza egitasmoa kideek urteko lehen saioa egingo dute. Eguraldi txarra egiten badu, Okendoko arkupeetan ariko direla iragarri dute. Okendo plaza, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Hopper, oilasko erbia filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute; kultur etxeko leihatilan eros daitezke. Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Todos lo hacen filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute; kultur etxeko leihatilan eros daitezke. Kultur etxea, 19:30etan.

ASTEARTEA 24

HERNANI Ipuin kontalaria

Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariaren kontakizunak entzun ahal izango dituzte etxeko txikiek. Edukiera mugatua izango dela jakinarazi dute antolatzaileek, eta gonbidapenak liburutegian eskuratu behar direla. Udal liburutegia, 17:30etan.

ASTEAZKENA 25

ASTIGARRAGA Hitzaldia

Julen Linazasoro hizlariak bideojoko eta sareko plataforma ezagunen edukiei buruzko hitzaldia emango du, eta aztertuko du arriskuen aurrean prebentzioa nola landu. Erribera kulturunea, 17:30etan.

HERNANI Dokumentala

Ritxi Lizartza eta Juan San Martin zuzendarien *Ainarak* dokumentala proiektatuko dute. Sarrera doakoa den arren, gonbidapenak



LASARTE-ORIA Familia antzerkia. *Bi ipuin* familia antzezanaren emanaldia egingo du Tomaxen abenturak taldeak. Muxi eta Tomax liburutegira joango dira, eta bertan bi ipuin aukeratu dituzte: *Ahatetxo itsusia* eta *Txanogorritxo*. Bi ipuin horiek bere erara antzezen saiatuko dira oholta gainean; ohi bezala umorea, magia, kantak eta dantza uztartuko dituzte emanaldia osatzeko. Sarrerek 4 euro balio dute.

Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioa, 17:00etan.

eskuratu behar dira. Biteri kultur etxea, 17:30etan.

OSTIRALA 27

HERNANI Kontzertua

Anari musikariak kontzertua emango du. Emanaldi akustikoa izango dela iragarri dute, eta bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa. Honako helbidean eskura daitezke horiek: www.kultura.hernani.eus. Chillida Leku Museoa, 19:30etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak zineforuma egingo du, *La maternal* filma proiektatuta. Sarrerek 6 euro balio dute. Kultur etxea, 22:00etan.

LARUNBATA 28

HERNANI Independentzia Eguna

Buruntzaldeko Ezker Abertzaleak eskualde horretako II. Independentzia Eguna egingo du. Honako egitaraua iragarri du:

11:00etan, *Burujabetzak mugarriz, independentziara bidean* hitzaldia, Biteri Kultur Etxean.

14:00etan, herri bazkaria (Txotx-a egongo da) eta Mexikortxo, Atsegindegina.

Bertaratzeko txartelak erostea ezinbestekoa dela jakinarazi dute antolatzaileek (tiketa eta kamiseta 15 euro).

18:00etan, manifestazioa abiatuko da Gudarien plazatik, *Bidea igariz, independentziarantz!* lemapean.

20:30etan, Pleura eta Arkada Social musika taldeen kontzertuak Garin herriko tabernan. Ondoren, DJ Atxuak RaZin.

Hernani, 11:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Hondamendia antzezanaren emanaldia egingo du Artedramak eta Axut!-ek. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

IGANDEA 29

LASARTE-ORIA Zinema

Kung food filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute; kultur etxeko leihatilan eros daitezke.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

El peor vecino del mundo filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute; kultur etxeko leihatilan eros daitezke.

Kultur etxea, 19:30etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

'Hopper, oilasko erbia'

Igandea 22
17:00.

'Todos lo hacen'

Igandea 22
19:30.

'La maternal'

Ostirala 27
22:00.

USURBIL

URBIL

'Avatar: el sentido del agua'

Ostirala 20
16:00, 17:00,
18:00, 19:30,
20:00, 21:00,
22:00.

Larunbata 21
16:00, 17:00,

18:00, 19:30,
20:00, 21:00,
22:00.

Igandea 22
16:00, 17:00,
18:00, 19:30,
20:00, 21:00.

'M3gan'
Ostirala 20
17:10, 19:45,
22:20.

Larunbata 21
17:10, 19:45,
22:20.

Igandea 22
17:10, 19:45,
22:20.

'El gato con botas: el último deseo'

Ostirala 20
16:50, 18:40.

Larunbata 21
16:50, 18:40.

Igandea 22
16:50, 18:40.

'El asombro de Mauricio'

Ostirala 20
20:55.

Larunbata 21
20:55.

Igandea 22
20:55.

'A todo tren 2: les ha pasado otra vez'

Ostirala 20
15:50.

Larunbata 21
15:50.

Igandea 22
15:50.

'Babylon'

Ostirala 20
17:30, 21:30.

Larunbata 21
17:30, 21:30.

Igandea 22
17:30, 21:30.

'Cantando bajo la lluvia'

Ostirala 20
20:55.

Larunbata 21
20:55.

Igandea 22
20:55.

'Operación fortune: el gran engaño'

Ostirala 20
15:55, 21:15.

Larunbata 21
15:55, 21:15.

Igandea 22
15:55, 21:15.

'Poker face'

Igandea 22
22:00.



LABURPENA

'Todos lo hacen'

Zuzendaria: Martin Cuervo. **Gidoia:** Marta Sanchez eta Irene Niubo. **Argazkia:** Pablo Bürmann. **ekoizleak:** Álamo Producciones Audiovisuales, A Contracorriente Films. **Herrialdea:** Espainia (2022). **Iraupena:** 99 minutu. **Generoa:** Thrillerra, komedia beltza eta drama. **Aktoreak:** Salva Reina, Kira Miró, Carlos Santos, Mariam Hernández, Julián López, Andrea Duro, Toni Acosta, Macarena Gómez, Víctor Palmero, Pablo Carbonell, Yaiza Guimare.

Ezkutuko arrazoia argitzeko

Sergio eta Laura El caseron landa-hotelera gonbidatu dituzte asteburu bat igarotzeko. Hunkituta daude, bost urte lehenago ezkondu baitziren, mendiz inguratutako ametsezko leku horretan. Eurak bezala, beste lau bikote ere joango dira euren baldintza berean; horiek ere han ospatu zuten euren

bizitzako egunik zoriontsuena. Horetako inork ez daki zergatik gonbidatu dituzten bertara.

Afalorduan, Manuel jabeak, lausengu askorekin hartuko ditu, baina otorduaz gozatu ondoren, gonbitearen arrazoia aitortuko die: arazo larria du ogasunarekin eta gonbidatuen laguntza behar du.

2021ean JAIOAK

ERALDAKETA BATEN ALDE

La 
Salle

Berrozpe
Andoain

ZATOZ GU EZAGUTZERA! BANAKAKO BISITAK

Informazio gehiago:
www.lasalleberrozpe.eus

AURREMATRIKULAZIO DATAK



OTSAILAK 13tik · 24ra

